

Agurtza deuna sendian

Maiatzean, izadia orriz eta loraz jazen danean, lorak, itxaropena eskeintzen deusagu Andra Mariari. Bere illa dau. Eskola-umeak be sarri entzun dabe ori. Baina urria, orriak jausten doazan illa be berari eskeinia dala, askozaz be gitxiago esaten da. Urria, Errosarioaren illa da; Andra Mariaren omenez aspalditik eratu zan otoiitz berezia dan Agurtza edo errosarioa.

Errosarioa bakarka zein taldean errezauleike, or ez dago zalantzarik, baina lagunartean errezautea beste gatz bat daukanik be ezin da ukatu. Noizbaiten norbaitek edo norbaitzuek bear aundia egin eben errosarioa eleizako orma barruetatik arutzago, familietara eroateko. Beste leku askotan lantxe Euskalerrian be ondo sustraiturik egoan otoiitz eder au. Eguneroko zeregin eta arazoak amaitzen joazanean, afal aurretik edo ondoren, beste autu guztiak baztatu eta familia osoa asten zan errezuau. Aita edo ama, aitita edo amama, edo umeren bat edo geiago izango ziran errezua zuzentzen ebenak. Umeak be bai, gerorako ikasten joan eitezan. Gauza larriren batek izan bearko eban eguneroko errezualdia izteko, eta orduan be, oeratzera koan, Andra Mariari zerbait errezatzeko agindua jaso oi zan.

An egoten zan Andra Mariaren kuadroren baten oinean untzeren batetik dindiliska errosorioa. Ez zan inor arritzen errezurako ordua eldu zala entzutean. Arnasea artzea lez, jatorduetan maajian jezartea lez normaltzat joten zan familiako errezua. Gaurko egunean oitura ori asko moteldu danik ezin leike ukatu. Zorioneko Telebistek mututu ditu otoiitzaldi bat eta bi baino geiago.

Oraindino antxe dago etxe askotan errosariotxoa nork eskuan artuko.

Aspaldi entzundakoa dot, guraño bateg esana. «Berrogeita bost urte daroguz ezkondu ginanetik. Ainbeste urtetan alkarren ondoan eta ez dogu bein be aparteko gorabeerarik euki. Eguneroko zereginei loturik eta baketsu bizi izan gara; eta gure bake-iturri, zalantza bari, eguneroko errosarioa. Umeak be geure ondoan ikasi eben errezoa eta orain etxeetan oitura berorregaz jarraitzen dabe». Irurogeita amaika urte zitan arren, gizon sendoa egoan oraindino. Zartzaroaren itugin eta alekak zirkin gitxi eragina. «Osasuna eskatu be egiten dogu eta, egunero eskatu ezkeron emon egiten deusku gure Juangoikoak», inostan irribarrezka.

Aita Peyton amerikarrak urte luzeak emon zituan gai beroni ekin eta ekin. Sarritan aitatzen eban errazoa beste auxe eban: «Dibortzio eta banaketa aizeak ain gogor joten daben uneotan be, etxe giroan alkaturik errosarioa errezaten daben familiak alkaturik irauten dau». Alkar aitu ezin asko, eguneroko bizitzeak dakarzan arri koxkor asko bigundu eta konpondu zituala sendiko errosarioak, agurtza deunak esan oi eban.

Urria Andra Mariari, Agurtza deunari eskeinia da eta egoki litzateke aurretikoengandik ikasi genduan errezu eder au barriro be indartuko balitz. Mututu daitela apur baten Telebistea, etxekoen artean, danak batera Andra Mariari Errosarioa esateko.